



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

LETREN  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE LETRAS

**AL-ANDALUSEKO GAZTELU EDO *HİŞNEN*  
EZTABAIDA, MANUEL ACIÉN ALMANSAREN  
TEORIATIK ABIATUTA  
*GRADU AMAIERAKO LANA***

2021-2022 ikasturtea

Historiako Gradua

Filologia eta Historiako saila

**Ikaslea:** Irati Azpiazu Galarza

**Irakaslea:** Jesús Lorenzo Jiménez

## LABURPENA

Lan honen xedea al-Andaluseko emirerriko *hişnen* funtzioaren inguruko eztabaida historiografikoa plazaratzea da, horretarako Manuel Acién Almasaren teoria erdigunetzat hartuz. Gotorlekuen ikerketak egin zituzten lehen autoreek haien izaera kolektibo eta komunitatekoa azpimarratzen duten arren, beste batzuek diote gaztelu feudalek moduan jarduten zutela, hots, inguruko gotorleku eta herrixkak zein are hiri islamizatueta harraparitza jarduerak burutzen. Hain zuzen ere, egituraketa feudala ezaugarritzen dietako bat (zehatzago esateko, lehenbizikoz egituraketa feudala ezaugarritu ziena) Acién bera dugu, zeinak 1990ko hamarkadatik aurrera al-Andaluseko gotorlekuen inguruan interpretapen sendoenak egin zituen, eta egun onetsienak izaten jarraitzen dutenez eredutzat hartzen diren. Gauzak horrela, Acién hartu dut lanaren abiapuntu modura, eta bere tesia plazaratzera eta baliatu dituen oinarri teorikoak zein diren aztertzerantz bideratu dut lana. Izan ere, egun dirauen eztabaida ulertzeko ezinbestekoa da hark suposatu zuen inflexio puntua aintzat hartzea.

Beraz, gaztelu baten nondik norakoan definitu ostean, lanaren lehen zatia Aciének baliatu dituen oinarri teorikoen azterketa izan da, egile bakoitzak plazaratzen dituen ideiak ezagutzera aiegia, ostera Aciének baliatzen dituenak zein izan diren identifikatu ahal izateko. Bigarren zatia, aldiz, Acién beraren teoria aurkeztean eta erabili dituen autoreen ideia horiek non islatzen diren azaltzean oinarritzen da. Noski, kontuan hartuta baliatu dituen autoreetako zenbaitek elkarren aurkako ideiak dituztela (eta beraz agian elkarrekiko bateragarriak ez direla), baliteke Aciéne teoriako elementuek bat ez egitea eta beraz hankamotz geratzea. Teoriaren ahultasunaren kontua, hala ere, ondorioetan baizik ez dut aipatu, aipatu gisan lanaren funtsa izatez teoria ezberdinak eta haien artean sorturiko eztabaida aurkeztea delako. Hala ere, baliteke onetsita dagoen teoria neurri batean zalantzan jartzeak etorkizunean ikerketa lerro berriak irekitzeko eta eztabaida eguneratzeko parada ere eskaintzea.

**Hitz gakoak:** Acién, Guichard, *hisn*, *ummahat al-husun*, *incastellamento*, feudalismoa, aristokrazia bisigodoa, muladiak.

## **AURKIBIDEA**

<b>1. SARRERA</b>	3
<b>2. GAZTELU BAT DEFINITZEN</b>	4
<b>3. MANUEL ACIÉENEN OINARRI TEORIKOEN JATORRIA</b>	4
3.1.    Toubert, Francovich eta Hodges: <i>incastellamento</i> fenomenoa	4
3.2.    Barbero eta Vigil: lehen hurbilketak al-Andalusera	7
<i>Manzano Moreno: Barbero eta Vigilen tesiaren berrespena</i>	8
<i>M. Fierro: kapitulazio itunen tesiari kritika</i>	10
3.3.    Guichard, Bazzana eta Cressier: <i>hişnen</i> lehen ikerketak	11
<i>Guichard, Bazzana eta Cressier: 1988ko ekarpen bateratua</i>	14
<b>4. MANUEL ACIÉENEN TEORIA</b>	16
4.1.    Ibn Hafşūn: Aciéenen teoriaren oinarria	21
4.2.    Ibn Ḥafşūnen genealogia, ustezko mitoa	23
<b>5. ONDORIOAK</b>	24
<b>6. ITURRIAK</b>	27
Lehen mailako iturriak	27
Entziklopediak eta hiztegiak	27
Bibliografia	27

## 1. SARRERA

Azken hamarkadetan nabarmen ugaitu dira Erdi Aroko gazteluen inguruko ikerketak. Ikerketa horien aintzindari nabarmengarrietako bat Toubert da, zeinak mundu feudaleko gazteluak definitu eta azaldu baitzituen proposatu zuen *incastellamento* fenomenoaren bidez. Fenomeno horretatik abiatuta anitzak izan dira haien inguruko interpretapenak, hasiera batean guztiak ere mundu feudalarari lotutakoak, iturri dokumentalak zein arkeologikoak oinarri hartuta. Al-Andalusera ere joan ziren hedatzen *hīṣn* moduan dokumentatuta agertzen diren gaztelu edo gotorlekuen ikerketak, horren garapenerako funtsezko izan zelarik 1976an Guichardek gizarte andalustarraren oinarri berriak ezartzea eta beraz gazteluei, antolaera horren baitan, izaera kolektiboa ematea, feudalararekin ezin aldera daitekeena.

Hala ere, inflexio puntua 1990ko hamarkadan kokatu behar genuke, Manuel Acién Almansak, aurretik egindako proposamenak oinarri hartuta eta ordura arteko izaera kolektiboa baztertu eta feudala azpimarratuta, sekula izandako hipotesirik konplexuena garatu zuenean. Hainbesteko oihartzuna eta onespena izan zuen ezen egun indarrean dagoena izaten jarraitzen baituen, eztabaida historiografikoak badirauren arren. Aciénean teoriaren xedea morfologikoki ezberdinak diren *hīṣnak* baliatuta al-Andalusen egitura bisigotiar feudalizatzaileek iraun zutela, eta beraz kaliferriaren ezarpenera arte formazio edo antolaera feudalak bazirela baieztatzea litzateke.

Beraz, eztabaidaren erdigunea Acién izanik, lanaren ardatza berau izango da. Baina noski, bere teoriaren eraikitzerako gazteluen (izan feudal ala islamiar) inguruan izan diren ideia ezberdinak eta elkarrekiko kontraesankorrak direnak baliatu ditu; eta beraz, horien azterketa litzateke lanaren lehen atala. Oinarriztat baliatu dituen autoreen artean mundu andalustarreko ikerlariak dira nagusi (Guichard, Bazzana, Cressier, Barbero, Vigil, Manzano, Fierro...), baina badaude Europa feudaleko ikerketak burutu dituzten autoreak ere (Toubert, Francovich eta Hodges), bere teorian mundu islamiarrari mendebaldeko ezaugarriak ezartzen dizkion heinean horiek ere baliagarri zaizkiolako; bai eta aipatu moduan gazteluen inguruko lehen ikerketa edo postulatuak mundu feudalarari loturikoak liratekeelako. Behin oinarriak identifikatuta, Acién beraren teoria plazaratzea izan da lanaren bigarren atala, interesatzen zaionaren arabera egile bakoitzaren ideiak nola baliatu dituen erreparatuaz. Azken zatia kritikarena litzateke, zeinetan Aciének eztabaidari eta *hīṣnen*<sup>1</sup> azterketari egin dien ekarpena

---

<sup>1</sup> Arabiar hitzen inguruko argipen bat: lanean agertzen diren hitz guztiak singularrean ageri dira gaizkiulertuak ekiditeko; baina Aciének bere lanetan pluralean baliatzen zituenez haien forma pluralak ere badaude adierazita.

onartuta bere teoria zenbaterainoko aplikagarria den zalantzan jartzen baiten, elkarrekiko kontraesankorrak diren iturriak baliatzen dituen heinean.

## 2. GAZTELU BAT DEFINITZEN

Gaztelua defentsa eta lurraldearen gaineko kontrola xede duen egitura arkitektonikoa da. Garaiaren eta kasuaren arabera egitura defentsiboak ezberdinak izan dira, eta beraz gazteluaren nolakotasuna haren funtzioaren testuinguruan ulertu behar dugu. Egun gazteluaren ideia zurruna badugu ere, ezin daiteke gaztelu edo egitura defentsibo mota bakarraz mintzatu. Hirigunean zein landagunean kokatzen diren eraikuntza sendoak dira, irauteko eginak (duten funtzioagatik edo botereak eraiki ohi dituelako), normalean dorreak izaten dituztenak. Baina ez dituzte ezaugarriok izaten beti; beraz, gaztelu edo egitura defentsibo dei dakioke funtzio militar edo lurraldearen kontrolarena duen eraikinari, haren elementuen handitasuna eta eraikin multzoa kontuan hartu gabe. Baina noski haiek gaztelu bezala identifikatzeko elementuak ere izan behar ditu, defentsarako harresiak, esaterako. Zailtasunak egoten dira gazteluak garaierako ezarmenduetatik ezberdintzeko; bigarrenak denbora bateko babeslekuak diren egitura defentsiboak dira, baina gaztelu izateko elementu edo baldintza minimoak ez dituztenak (Malpica 2003: 34).

Hala ere, esan beharrekoa da emirerri garaikotzat identifikatu diren eraikin gehienak hiritarrak direla, landagunekoak ere egon badauden arren. Azken horiek gazteluak baino “garaierako ezarmenduak” dira Malpicaren aburuz (2003: 39), botere politikotik kanpo eraikitakoak, batzuetan aurretik eraikita zeuden esparruak aprobetxaturik eginak. Baina ia ez dira ikertuak izan nahiago izan delako hiriguneko defentsak edo obra publiko handiak aztertzea.

## 3. MANUEL ACIÉNEEN OINARRI TEORIKOEN JATORRIA

### 3.1. Toubert, Francovich eta Hodges: *incastellamento* fenomenoa

Mundu feudalean agertzen diren gazteluei buruzko lehen adierazpenetako bat Toubertena dugu, bera izan baitzen *incastellamento* delakoaren teoria plazaratu zuena. Haren arabera, X. mendean iraultza bat jazo zen, zeinak erabateko haustura suposatu baitzuen aurreko populazio eta nekazal egiturarekiko; horrela, fase prekastral batetik ordura arte jendeztatu edo okupatu gabe zeuden kastroen okupaziora igaro zen populazioa, eta gotorlekuetara igarotzeak nekazarien askatasunarekin amaitu zuen. Izan ere, jaunek etsaiaren

aurrean emango zieten babesaren aitzakiapean, nekazariak euren zapalkuntzaren pean kokatu ziren. Horrela, irekia eta dispersatua zein paisaia batetik kontzentratua eta gotortua zen batera igaro zen, zeina defentsarako elementuak zituen harresi gotortuetan antolatzen zen (Toubert 1990: 202-204).

Toubertek zioen (1990: 201-208) gotorleku horietan argi zegoela jauna zela nagusia, egitura guztia bere egoitza zen *rocca* (haitza) edo omenaldi-dorrearen baitan baitzegoen antolatuta. Balizko babeserako nekazariari forma laukizuzeneko espazio bat ematen zitzaion itxitako esparruaren barnean bizilekua eraikitzeko, bai eta horrekin batera ortua eta lurra lantzeko espazioa ere, gehienetan espazio harresitutik kanpo geratzen zena. Noski, jaunaren harrizko omenaldi-dorrea ez bezala, nekazarien etxeak egurrezkoak izango ziren, hori ere jaunarekiko zuten menpekotasunaren adierazle izanik.

Jaunaren borondaterik ezean, egitura kastral eta kontzentrazioarako joerarik eza egongo zela azpimarratzen du, hau da, jaunen nekazariak harrapatzeko nahimen hori gabe X. mendeko iraultza eta nekazarien egoeraren errotiko aldaketa ezin uler daitezkeela. Iraultza horren ondorioz XI. mendearen erdialderako gotorleku edo kastroak oro har eraikita zeudela, eta horiek kontrolerako mekanismo izanik eremu oro haien pean geratu zela zioen, dena erabat hertsirik geratu zela, alegia (1990: 207-211).

Toubertek iradoki zuen iraultza edo aldaketa bat-batekoaren aurka, hots, jarrera mutazionistaren aurka, Francovich eta Hodges arkeologoen, Italia oinarri harturik, jaunen domeinuaren prozesua (eta beraz, nekazarien askatasunaren galera) prozesu jarrai eta pixkanakakoa izan zela defendatu zuten; hau da, *incastellamento* fenomeno pixkanakako gertaera etengabekoen ondorio izan zela. Egiazki, garaiera edo tontorretan kokatzen ziren ezarmenduen hasiera VII. mendean hasi zela zioten, zeina nekazarien inizatibaz eta inolako oztoporik gabe garatu zen; VI-VII. mendeetako krisi politikoek erabateko haustura suposatu zuten Antzinatearekin, eta botere publikoa ere erori egin zen. Horrez gain, artisautzan produkzio xumeagoak egiten hasi ziren, merkataritza elkartrukeak urritu egin ziren (batez ere urrunekoak), hiriek gainbehera izan zuten... Botere publikoaren erorketa garai hau izan zen nekazari askeen urrezko garaia; izan ere, zentroak abandonatu eta nekazaritza gune kolektibo modukoak sortzeari ekin zioten, herrixkak, alegia (*villages* izendatu zituztenak). Euren

borondatez okupatu zituzten guneok garaierakoak izaten ziren, asko Burdin Aroan edo Historiaurreko aro goiztiarra goetan okupatu zirenak (Francovich eta Hodges 2003: 109-110)<sup>2</sup>.

Aldaketa VIII-IX. mendeetan kokatu zuten Francovich eta Hodgesek, karolingiar dinastiaren iritsierarekin, zeina landaguneko elite berriaren agerpenarekin ezaugarritzen baiten. 1000 urtean baino, 800 urtean ezarri zuten tokiko aristokraziaren domeinuaren hastapena, eta handik aurrera desadostasunak landako aristokrazia politiko horren artekoak izan zirela zioten. Garai honetatik aurrera lurraldeen espezializazioa erroto zen, zeinak behar indibidualak zein sozialak asetzeko loturen beharren hasiera adierazi zuen, bai eta horrekin batera eskubide eta betebeharren antolaeraren hasiera ere. Lan banaketa edo espezializazio horrekin iraultza sozial bat jazo zen, zeinak nekazarien eskubideen murrizketari eman zion bide (Francovich eta Hodges 2003: 111).

Hurrengo urratsa X. mendean kokatu zuten, baina betiere fase honetan jazorikoa iraultza izan ez zela adierazita. Egiakzi, IX. mendeko herrixketan jaunak finkatu eta handik zenbait belaunalditara, prozesu pixkanakakoaren ondoren, tokiko boterea aristokraziaren esku geratu zen, zeinak lurraldeko eskubideak zehazten baitzituen. Eraldaketa horren espresioari deitu zioten *incastellamento* delakoa, jaunen boterearen gailurrari. Beraz, ez zuten Touberten ikuskera beretik interpretatu: *incastellamento* herrixketako bizitza lau mendez egin ondoren kokatu zuten, herrixken arteko sareak eraikita zeudenean, lurjabeek hiru edo lau mendez abandonatuta egon ziren lurren garbiketa eta kolonizazioa agindu zutenean eta landaguneko merkatuek berpiztea izan zutenean. Nekazariak jaunen peko baldintza hori onartzearen arrazoia zera izango zela iritzi zioten, hiriak elkarrekiko interdependenteak ziren sisteman zeudela txertatuta, zeinetan jaunak etekin materialak izateko egiten zuten presioa ezin zen bazter utzi. Hori Francovich eta Hodgesen aburuz (2003: 111-112), besteak beste, XI. menderako zeuden eraikitze teknika onekin, zeramika kantitate izugarriekin eta animalia arrasto ugariekin islatzen da, VII-VIII. mendeko material pobretasunarekin aldera ezin daitezkeenekin.

---

<sup>2</sup> Francovich eta Hodgesek Italiari aplikatu zioten bilakaera aplikatu zion Malpicak (2003: 69) al-Andalusi: arabiarren etorrera aurretik bazeuden populazio guneak gune altuetan, eta litekeena da gizarte islamiarren jardueraren ondorioz konplexuagoak bilakatzea. Noski, ez da ulertu behar gune horietan esplotazio sozialik ez zegoenik: egia da Antzinateko erakundeak erortzean nekazariak askatasuna lortu zutela, baina egon ziren lurren gaineko kontrola ezartzen saiatu ziren jabeak ere, Ibn Ḥafṣūn kasu.

### 3.2. Barbero eta Vigil: lehen hurbilketak al-Andalusera

Babero eta Vigilek feudalismoaren inguruko ikerketak izan zituzten ardatz, eta hortik abiatuta al-Andaluseren jazo zena azaltzen saiatu ziren lehen autoreetakoak dira. Mundu bisigotiarreko (zeina gizarte feudalizatutzat hartu zuten) gerra zibila eta musulmanen konkista loturik egon ziren Barbero eta Vigilen aburuz. Hori hiri garrantzitsuenetan egindako itunetan islatzen da, haien bidez musulmanek tokian tokiko legeak, erlijioa, magistratuak eta jabetzak mantentzea onartu baitzieten kristauei. Horrela, hiriek euren antolaera eta bizimoldeari eutsi zieten, musulmanak ez zirenek lege islamikoak ezarritako tributazioak ordaindu behar zituzten arren. Itun ezagunetako bat Tudmīrrena dugu, Murtzia eta Alacant ingurua gobernatzen zituen funtzionarioarena. Haren bidez Tudmīrrek bere jabetzak eta gobernatzen zuen lurraldea mantendu zituen, eta lurralde hartako biztanleriari ere euren erlijioa eta ondasunak mantentzea aitortu zitzaien. Horren trukean betiere espeziean eta dirutan errenta bat ordaindu eta musulmanekiko jarrera lagunkoia izan beharko zuten. Izaera pertsonaleko antzeko itunak izan ziren musulmanen eta erreinu bisigotiarreko jabe handi gehiagoren artean ere; horietako bat dugu Banū Qasīena<sup>3</sup>. Beraz, hiri eta jabe gehienek musulmanekin itundu eta euren jabetzak mantendu zituzten; horrela, lurraldearen gehiengoak indigenen esku egoten jarraitu zuen (Barbero eta Vigil 1991 [1978]: 208-209).

Halaber, bada kronika batean aipatzen den elementu bat, gaiari zuzenean eragiten diona: “*Sed ubi inpetrata territi metu recalcitrant, ad montana temti iterum effugientes fame et diuersa morte periclitant*” (CIH: 229). Haren arabera, godoen eta musulmanen arteko itunen ondorioz godoek hiriak utzi eta gaztelu eta herrixketara joan beharko zuten bizitzera. Halaber, populazio bisigotiarra sistema tributarioaren baitan kokatzearen oinarriak itunak izan zirela diote: euren ondasunak eta erlijioa mantendu zituzten eta itundutakoa betearaziko zuten, eta autoritate musulmanari zergak ordainduko zizkieten buruzagiak aukeratzen jarraitu zuten; baina hirietatik alde egin zuten (1991 [1978] 211-212).

Barbero eta Vigilek ziotenez (1991 [1978]: 228-230), musulmanak bisigodoen oinordekoak izan ziren zentzu politiko eta militarrean, eta baieztapen hori gakitza jo zuten aurretik bisigodoenak ziren lurjabetzak VIII. mendean musulmanenak zirela ulertzeko. Beraz, konkistak ez zuen suposatu erreinu bisigotiarreko errealitate ekonomiko, sozial eta instituzionalarekiko eraldaketa bortitzik, hau da, Iberiar Penintsula mundu islamikoaren parte izatera igarotzeak ez zuen ekarri aldaketa nabarmenik. Egiazki, estatu bisigotiarren

---

<sup>3</sup> Banū Qasīei buruz informazio gehiago ezagutzeko ikus Lorenzo Jiménez (2010).



ezaugarri feudalen nolabaiteko jarraipena sumatzen da, zeinak konkista errazteko eta administrazio musulmanari kohesioa emateko baliagarri izan ziren menpekotasun pertsonaletan islatzen diren.

Erreinu bisigotiarren azkenetan estatuaren kohesioa menpekotasun pertsonaleko erlazioen baitan zegoen eraikita, zeinak fideltasunari nolabaiteko balio politikoa ematen zion. Halaber, musulmanek buruzagi bisigodoekin egindako itunek ere bazuten fideltasuneko derrigorrezkotasun bat. Lotura pertsonal horien adibidetzat aipa ditzakegu Tudmīr edo Qasio kondeak. Denboraren igaroan tokiko lurjabe handi kristauak islamera konbertitzen eta buruzagi arabiarrekin fusionatzen joan ziren. Hala ere, euren menpekotasun politikoak jarraitu egin zuen klientela bidezko harreman pertsonalen ondorioz; adibide moduan Banū Qasīek omeiar dinastiarekiko zutena legoke. Horrekin adierazi nahi zutena zera da, konkista musulmanaren garaian erreinu bisigodoan zeuden menpekotasun pertsonaleko harremanak omeiar garaiko gizarte islamizatuan zeudenekiko alderagarriak edo are berdinak zirela. Islamean erlazio politikoei egiten zitzaien sakralizazioa erreinu bisigotiarrean ere jazotzen zen; horrela uler dezakegu musulmanek Penintsulan hegemonia politikoa mantendu izana. Islamizazioa, beraz, ez zen izan fenomeno kultural edo erlijioso soila; Penintsulan lehendik hasia zen feudalizazio prozesua finkatzeko baliagarria izan zen (1991 [1978]: 230-231).

*Manzano Moreno: Barbero eta Vigilen tesiaren berrespena*

Barbero eta Vigil aipatuta ezin daiteke Eduardo Manzano Moreno bazter utzi. Manzanok diona da bi historialariek egindako ekarpena guztiz interesgarria izan arren euren planteamenduak guztiz alboratuta geratu zirela Guichardek 1976ko lanean konkistatzaile arabiar eta berebereen izaera tribala bertako gizarte indigenari erabat gainjarri zitzaiola eta al-Andaluseko gizartearen ezaugarriak gailendu zirela esan zuenean; eta noski, horrekin guztiarekin ordura arteko gizartearen erabateko haustura aipatu zuenean. Ideia horiei jarraiki, Barbero eta Vigilen interpretapenak baztertuak izan dira hausturaren ideiarekin tokiko indigenen egiturak ustez desagertu egin zirelako; baina Manzanoren ustetan argi dago konkistatzaileek heldu zirenean zerbait topatu zuten heinean horrek nolabait eragingo zukeela (Manzano 1998a: 343-346).

Haustura iradokitzen ez duten zenbait elementu aipatzen ditu Manzanok. Batetik konkistatzaileek indigenekin sinatutako itunak, horietan hasieran sustrai indigenak aldarrikatu eta euren ondasunak independentziaz kudeatzeko ahaleginak egin zituztela ikusten delarik. Ibn Ḥafṣūnen kasua ere baliatzen du IX. mendearen bigarren erdialdera arte aristokraziak

boterearen oinarri feudalak mantendu zituela azaltzeko; eta baieztapen hori aldi berean Barbero eta Vigilek aipatu zituzten konkista garaiko itunek feudalizazio prozesuan sakontzeko baliagarritasuna izan zutela justifikatzeko. Gizarte indigena egitura feudalean antolatzen zela uste duela pentsa daiteke, planteatzen dituen galderak baieztapen horietatik abiatzen direla ikusten baita (Manzano 1998a: 346-349).

Hori ez ezik, gizarte berebere-arabiarren izaera tribala zalantzan jartzen du neurri batean. Batetik dio al-Andaluseko berebereen kasuan ezin esan daitekeela egitura tribaletan baizik bizi zirela, Penintsulako erdialdeko eta hegoaldeko zonalde batzuetan jatorriz tribalak ziren inguruetan leinu aristokratikoak sortu zirelako, zeinak lurralde batzuetan euren boterea ezartzen amaitu zuten; nahiz eta aitortzen duen badaudela Levante bezalako gune bereberizatuak, leinuen aristokratizaziorik gabe tribuen baitan mantendu zirenak. Halaber, antolaera tribal arabiarra are Islama sortu baino lehen desegina izan ote zen planteatzen du, bai eta aristokrazia indigenarekin egindako itunek zein konkistatzaileen dispersio geografikoak prozesu horretan sakonduko zuela ere. Hain zuzen, diona da ez dela ezberdintasun handirik sumatzen leinu arabiar eta indigenen artean lurraldearen gaineko kontrolari dagokionean. Kontua da leinu horiek existitu zirela frogatuagatik ezin dela jakin baliabideen harrapaketa feudalen antzeran egingo zutenik (Manzano 1998a: 349-350).

Beraz, Manzanok azpimarratzen du (1998a: 352) ikerketa gehienak izaera fiskalekoak direla, eta beraz Barbero eta Vigilek azaldu zituzten menpekotasun pertsonaleko harremanak (*walà* delako harreman klientelarrak, menpekotasun feudalaren parekotzat zituztenak) bigarren planoan geratu direla. Hain zuzen, diona da fideltasun erlazioek rol garrantzitsua izan zutela zenbaitetan, adibidez Banū Qasīnean, zerbitzu militarrek eskaintzearen ondorioz Iparraldeko Mugan ondasunen aitortza lortu baitzuten. Manzanok erlazio horiek basailutzakotzat eta mendebalde feudalarrekiko alderagarritzat ditu, gizarte islamikorako hitz hori baztertzen den arren.

Baina gizarte islamikoko erlazio feudalak aitortzen dituen bezala, kohesionaturiko nekazari komunitateak zeuden lekuak jaunen boteretik at eta tributoaren bidez soberakinaren esku egiten zen estatuarekin harreman zuzenean zeudela dio. Komunitate horiek lantzen zuten luraren jabe ziren eta beraz eurek kontrolatzen zuten produkzioa. Beraz, gizarte feudaleko egiturarekiko ezberdinak zirela esan daiteke, azken horretan nekazarien komunitatearen arteko kohesiorik eta estatuarekin zuzeneko harremanik ez zegoelako menpekotasun harremanek eta errenta feudalak lan prozesu guztia arautzen zutelako.

Antolaera horri lotuta militaritzazio eskasa izango zuten gizarte tribalek, errenta jaunik ez egoteak aristokrazia militar kohesionaturik eza dakarrelako. Beraz, komunitateek euren defentsa gotorleku edo babesleku bidez gauzatu zuten, gotorleku feudaleko oso ezberdinak zirenetan (Manzano 1998b: 894-895).

*M. Fierro: kapitulazio itunen tesiari kritika*

Barbero eta Vigilek esan zutenaren aurka, interesgarria da Maribel Fierrok ematen duen ikuspuntua. Lehen autoreek kapitulazio itunak aristokrazia indigenen jarraipenerako faktore moduan ikusi zuten bezala, Fierrok dio ondasunak eta boterea mantendu zituzten horiek izan zirela hain zuzen konkistatzaileen leinuetan xurgatuta geratu zirenak ezkontza mistoen bidez. Hori ez ezik, aurreko autoreek moduan Tudmīrren adibidea baliatzen du: ‘Abd al-Ŷabbar, kalifa omeiar baten kliente *mawlā* baten ondorengoa, Tudmīrren alabarekin ezkondu zen, eta horien ondorengoak Murtzia inguruko familia boteretsuena izatera heldu ziren. Berehala jatorri *mawlā* ezabatzen eta ondorengotza arabiarra ezartzen saiatu ziren, eta amaren memoria genealogikoa ere desagertzen joan zen, familiako aberastasun guztiaren jatorria berau izanagatik<sup>4</sup>. Tudmīrren kasua gisakoak, ezkontza mistoen bidez arabiarrek leinu indigenak xurgatzea, al-Andalusen ohiko fenomeno bat izan zela dio. Horri lotuta aipatzen du gizartean izandako haustura: kapitulazio itunak sinatu zituztenak desagertuak edo xurgatuak izan ziren; aldiz, iraun zutenak konkista ostean aberastu zirenak izan ziren (Fierro 2014: 17).

Fierroren hitzak kontuan hartuta, ezin esan dezakegu García Sanjuánek egindako baieztapena egiazkoa denik. Hark dioenez, trantsizioaren aldekoek egitura feudalen iraupena (*fitnaren* amaiera edo kaliferriaren hasiera artekoa, noski) azpimarratuagatik exogenoaren edo konkistatzaileen rola aitortzen duten bezala, formazioaren edo hausturaren aldekoek arrasto indigenen biziraupen oro ukatzen dute, eta feudalen etorrerara arte egitura klanikoen hedadura bizkorra eta biziraupena azpimarratzen dituzte (García Sanjuán 2006: 121). Baina Fierroren kasuan ikusten da ez duela bertakoen rola ukatzen, berehalakoan egitura islamikoetara xurgatuak izan zirela esaten baino. Gainera, García Sanjuán nolabaiteko kontraesanetan sartzen da (2006: 109), artikuluan bertan baitio Guichardek 1976an IX-X. mendeetan elkarrekin zirauten gizarte erabat ezberdinak zeudela aipatu zuela, hots, indigena eta arabiar-berebidea, bai eta litekeena dela aurreko garaietatik zetozen egitura latifundistek eta indigenekin okupatutako guneez iraun izana. Hori ez ezik, trantsizioaren

---

<sup>4</sup> Horrekin lotu behar dugu gerora azaltzen den Ibn Ḥafṣūnen ustezko genealogia faltsua ere. Izan ere, genealogia islamiarretan izen kristauak ez zerrendatzeko eta horiek desagertzera eramateko joera ikusten da.

aldeko jarrera duten autoreengan ere sumatzen da elementu konkistatzaileenganako ukazioa, edo behintzat haiei garrantzia kentzeko asmoa<sup>5</sup>.

### 3.3. Guichard, Bazzana eta Cressier: *hisnen* lehen ikerketak

Gazteluen hasierako ikerketak, aipatu moduan, Toubertek mundu feudalean jazo zena azaltzeko eraiki zuen *incastellamento* fenomenoaren inguruan kokatu behar ditugu. Horrek suposatzen zuen aurrerapausoarekin gazteluei buruzko ikerketak sakontzen joan ziren; eta hain zuzen, hirukote hau dugu al-Andalusekoei buruzko lehen ikerketa sakonak burutu zituen.

Guichard izan zen al-Andaluseko gizarte islamiarraren oinarri berriak ezarri zituen. Zioena da musulmanen konkistaren ondoren kristauak itunpean iraun bazuten komunitate kristauen iraupena aipatzen duten lekukoak izan behar genituzkeela, baina ia ez dagoela halakorik VIII-XI. mendeen artean. Aitzitik, familia handietan edo klanetan antolaturiko talde handien lekukoak badaudela zioen, zeinak gehiago iradokitzen duen Afrika iparraldeko eredu jarraipena Hispaniakoena baino. Horrekin ez zuen adierazten VIII. mendean tokiko biztanleria suntsitua edo kanporatua izan zela eta atzerriko populazioak ordezkatu zuela; baizik eta elementu indigenen garrantzia ez zela hainbestekoa: kristauak kualitatiboki zein kuantitatiboki beherakada izaten ari ziren eta VIII-IX. mendeetarako erabat orientalizatuak zeuden. Indigenen eragina kontuan hartzekoa dela irizten zuen, baina bi elementuen arteko fusio baten ondoriozko gizarte andalustar original bat baino, aurkaritzako garai luzearen ondoren elementu atzerritarra gailendu zela azpimarratu zuen, eta indigena aldiz sozialki asimilatuta edo zapalduta geratu zela (Guichard 1976: 34-37).

Beraz, 1976 aurreko autoreekiko aurkakotasuna adierazi zuen. Haiek ez zuten ukatzen arabiar-bereberek eurekin hizkuntza eta erlijioa ekarri zutenik; ziotena da, bi elementuen arteko fusioaren ondoren gizarte "hispaniar musulmanak", ekialdeko kutsuekin, mendebaldekoa izaten jarraitu zuela. Horren aurrean Guichardek zioen (1976: 57) al-Andaluseko gizartea askoz antzekoagoa zela ekialdeko gizarteekiko Mendebaldeko Erdi Aroko lurraldeekiko baino, hau da, ekialdeko gizarte arabiar-berebera ez zela al-Andalusen garatu zenarekiko ezberdina.

Hain zuzen, konkista musulmanaren lehen mendeetan elementu klanikoak eta tribalak nagusitu zirela zioen; eta litekeena dela horiek bisigodoen garaian ez egon izana, azken

---

<sup>5</sup> Autore horien artean aipa ditzakegu Sonia Gutiérrez edo Vicente Salvatierra. Haien tesien inguruko ideia bat egiteko behatu García Sanjuán (2006: 118).

horrek gehiago egiten baitu bat modelo prefeudal deritzonarekin<sup>6</sup>. Aitzitik, tribuak eta klanak (endogamia, agnatismoa, *aşabiyya*... gisako ezaugarriak barnebiltzen dituztenak) arabiar eta berebereen antolaera sozialerako oinarriak izan ziren VIII. mendean penintsulara heldu zirenetik; eta nagusitasun hori ere baliagarria da indigenen garrantzia urria ikusteko (Guichard 1976: 50).

Hala ere, aipatu moduan, ez zuen adierazi gizarte indigena desagertu zenik. Hain zuzen, IX-X. mendeetan ondoan zirauten baina erabat ezberdinduta zeuden bi gizarte aipatu zituen: indigena eta arabiar-berebera. Euren jarrera eta egiturak, noski, ezberdinak ziren: arabiarrek eta bereberak normalean talde klaniko edo tribaletan heldu ziren eta euren egitura soziala mantendu zuten; eta euren praktika endogamikoek (bai eta poligamikoek ere) talde etniko horien iraupena, leinuaren kohesioa eta hedatzeko gaitasuna bermatu zituzten. *Regnum Gothorum* delakoaren egoera ahula eta aristokraziaren zati baten ihesa aprobetxatuta, konkistaren ondorioz al-Andaluseko lurraldean tokiko biztanleriak atzerriko talde etnikoekin bizi behar izan zuen, zeinen antolaera sozio-politikoa eta ohiturak guztiz kontrakoak ziren. Horrek gizartearen arteko talkak eta tentsioak eragin zituen gatazka armatuak izateraino. Benetako eztanda IX. mendearen erdiko *fitna* litzateke, eta horren zioa indigenak arabiar-berebereen zanpaketaren aurrean euren kontzientzia garatu eta egoera berdintzaileago bat aldarrikatzen hasi izana litzateke (1976: 239-284).

Behin gizartearen oinarri teorikoak finkatuta, hori oinarri izanda Bazzana lurraldean agertzen ziren *hişnak* definitzen eta haren etimologia zehazten saiatu zen. *Hişn* (pl. *hişūn*) hiriguneetatik bereizita landaguneetan bizi den populua antolatzen duen egitura moduan deskribatu zuen, hots, dimentsio ezberdineko lurraldeek partekatzen duten egitura gotortu moduan. Literatura arabiarrek eta arrasto arkeologikoek erakutsi duten bezala, *hişn* kontzeptuak landaguneko komunitatearen lurraldeari zein egituraren zentro den gune gotortuari egin diezaioke erreferentzia. Levanten, Aragoi iparraldean, Andaluzia ekialdean zein Portugal erdialdean eta hegoaldean lurraldearen antolaketa bera izan zen IX-X. mendeetan (Bazzana 1998: 179-180).

Bazzanaren arabera (1998: 181-184), mundu islamikoan “gaztelu” hitza erabiltzea ez da aproposa, modu feudaleko funtzionamenduarekin lotzera eraman dezakeelako horrek. Horren aurrean Erdi Aroko arabiarrek erabiltzen zituztenak baliatzea aproposagoa litzateke. Landaguneko gotorlekuak erabiltzeko batez ere bi izendapen erabiltzen dira: *maʿqil* eta *hişn*;

---

<sup>6</sup> Ikusten da, beraz, beste autoreekin bat egiten duela bertako gizarte bisigotiarra feudalizatzen ari zela esatean.

baina ohikoena bigarrena litzateke, aldi berean lurraldea, haren erdigunea (elementu defentsibo moduan antolatzen dena maiz) eta haren inguruan antolatzen diren herrixkak barnebiltzen dituen. Noski, izendapenak babes edo defentsa bati ere egiten dio erreferentzia; izatez, *ḥ-ṣ-n* erro berak dituen *ḥaṣana* hitzarekin loturik dago, zeinak esparru bat gotortu edo eraikitzea esan nahi duen. Beraz, *ḥiṣn* hitzak gotorleku bat iradokitzen duen bitartean (hasieran naturala, eta jarraian eraiki egingo zena), zeina harresiz kanpoko populazioarekin lotuta legokeen, *maʿqil* gehiago lotzen da babesleku soilaren ideiarekin, biztanleriarekiko urrun eta topografikoki altua den gunean kokatzen denarekin. Dokumentazio kristauak izendapen horiek bazter uzten ditu horien ordezt *castrum* edo *castell* erabiliaz; eta Bazzanaren aburuz izendapen hori esleituta zera dirudi, biztanleria kontzentratzen zen nukleoak zirela, zeinetatik lurraldea antolatu eta kontrolatzen zen (hau da, hitzak nolabaiteko kutsu feudala hartzen du).

*Ḥiṣn*en funtzioak hainbat izan zitezkeela zioen: gehienetan babesgune moduan ulertzen da, biziguneen goialdean kokatzen zena baliabideak edo kanalen hornitzea bermatzen zuten ur presak behatzeko. Baina populazio islamikoa egituratzeko funtzioa ez ezik, IX. mendetik aurrera gune batzuetan defentsa edo kontrol funtzioa ere iradokitzen omen dute; izan ere, etsaiarekin kontaktua zegoen lekuetan joan ziren agertzen. Zuten funtzioa izanda ere, *Sènacek* horien izaera argiki kolektiboa azpimarratu zuen; eta argi dago horien kokapen geografikoa inolaz ere ez zela ausazkoa (Bazzana 1998: 192-193).

Azkenik, *ḥiṣn*en tipologia aniztasuna oinarri, euren funtzioa zehazten saiatu zen Cressier. Hain zuzen, Ibn Ḥayyān<sup>7</sup> *al-Muqtabis* iturria baliatuz, X. menderako espazioa lurraldeka zurrunki egituratuta zegoela adierazi zuen, horietako bakoitzaren erdian gaztelu bat legokeelarik. Gaztelu horietako gehienen morfologia sinpleak, inguratzen zituen *al-qaryā* edo herrixkekiko kokapen militarki ahulak, eta gotorleku baino gehiago lurralde moduan izendatzeak zera aditzera eramane zuen, tokiko nekazari komunitateen defentsa beharren adierazpenak zirela, ez mugako guneak edo kontrol militarra gauzatzeko elementuak. Hala ere, gotorleku horietako batzuek antolaera arkitektoniko konplexuagoa islatzen omen dute, eta X. mendean etengabe aipatu ziren horietatik egiten zen botere zentralaren aurkako matxinaden edo bertako *al-qāʿid* delakoien izendapenen harira. Ezaugarri horrek adierazten

---

<sup>7</sup> Ibn Ḥayyān kronistak (Kordoba, 987/8-1075) *al-Muqtabis* edo *Maṭin* bezalako lanen bidez al-Andaluseko historiaz zabal idatzi zuen, askotan aurreko autoreen idazkunak zuzenean kopiatzera mugatuz (EI, III 2003: 769).

du estatuko eta landaguneko populazioaren boterearen arteko oreka jokoan zegoen lekuak zirela (Cressier 1991: 409).

*Guichard, Bazzana eta Cressier: 1988ko ekarpen bateratua*

1988ko *Les châteaux ruraux d'al-Andalus* lana esangura handikoa da, ordura arte Erdi Aroko Espainiako eraikuntza kastralei buruzko ikerketarik egon ez zelako, batez ere musulmanei zegokienean. Horrek kastroen fenomenoaren kristautasunaren ezaugarria baizik ez zela interpretatzera bultzatu zuen, eta beraz Penintsulako esparru islamikoan presentziarik gabekoa (Bazzana, Cressier eta Guichard 1988: 21). Baina Valentzia eta Almeria inguruko kastroetako egiturak aztertuta ikusi da garai islamikoan eta are (bir)konkistako lehen faseetan agertzen diren gazteluak eta haien antolaera sozio-politiko feudalaren aurkakoak direla; izan ere, ez da agertzen boterearen sinbolorik, ez eta beraz kontrol sozialaren lorpenik ere (1988: 24).

*Ḥiṣn* hitzak, konkista aurreko iturri arabiarretan agertzen denak, ez dio erreferentzia egiten soilik gaztelu bati; zerbait konplexuagoa barnebiltzen du, zentzu territoriala baina bai eta soziala ere hartzen duelako, zeinetan *ḥiṣn*ak espazio mutilfunzional bateko biztanleen gaineko jurisdikzioa hartzen duen (1988: 32).

Valentziako lurraldeko *ḥiṣn*ak, jatorritik bertatik, antolaera sozio-politiko segmentarioaren adierazpenak zirela defendatu zuten, zeinak erlatiboki autonomoak ziren landaguneko komunitateetan zatikatuta zeuden. Ezaugarri hori IX-XIII. mende bitarteko gizarte islamiarrarena izan zela zioten, askok arrasto arkeologikook fase berantiaragoak zirela esan arren (are almohaden garaikoak). Baina izaera kolektiboko gune altuetan bizitzeko fenomeno goiztiarragoa dela iritzi zuten, nahiz eta ezin uka daitekeen almohaden garaian garrantzia hartu zutenik edo defentsa elementuak indartu zituztenik (batez ere kristauen mehatxuaren harira). Gotorleku bat egitura defentsibokoa izateak edo garai jakin batean eraiki izanak egitura kastral guztiei ezaugarri berak ematea arriskutsua ikusten zuten<sup>8</sup>. Egia da Alacanteko gaztelu gehienetan aurkituriko informazioa almohaden garaikoa dela, baina hori biztanleria hazkundeari loturiko gotortze prozesuaren ondorioa baizik ez zen izan. Gainera, litekeena da horiek *ḥiṣn*en bilakaerako azken fasea besterik ez irudikatzea (1988: 35-38).

---

<sup>8</sup> Puntu honetan autoreak nolabaiteko kontresanean sartzen dira, eurek ere Penintsula hego-ekialdeko gazteluen ezaugarriak Penintsula osoari ezaugarritu zizkietelako.

Iturrietan gaztelua izendatzeko modu asko agertzen dira, eta beraz hitz bakoitzari zentzu zehatz bat ematea zaila suertatzen da: hitzek zentzuz aldatzen dute erabiltzen dituenaren borondatearen, garaiaren edo iturrien arabera. Guztietan hitz ohikoena, lehendik ere Bazzanak adierazi moduan, *hişn* da, herrixka gotortu garrantzitsua, gaztelu feudalarekin zerikusirik ez duena. Hain nahasia da egoera ezen autore batek pasarte berean bi hitz ezberdin erabil zitzakeen errealitate bakar bat islatzeko. Gainera, ez dugu ahaztu behar denborarekin hitzen esanahi semantikoa alda litekeela, eta horrek are nahasmen handiagoa sortzen du. Hori ez ezik, garaiko gotorlekuei buruzko informazioa ez digute iturri arabiarrek soilik ematen, bai eta iturri latindarrek ere, zeinetan *castra*, *castiellos* edo *castells* moduan agertzen diren; baina horietako gehienak XIII. mendetik aurrerakoak dira, hots garai kristaukoak (1988: 68-69). Zaila da iturrien bidez soilik *hişnen* ezagutza izatea: alde batetik garaieran kokatzen diren gotorleku edo harresi eraiki moduan agertzen dira, eta beste aldetik modu aldizkakoan zein etengabea populatuta dauden herrixka moduan. Baina Mendebaldean ez moduan, ez zuketan izango jaunekin loturarik. Ukaezina da Erdi Aro islamikoan *hişnen* presentzia orokortua, eta IX. mendeko krisiaren ostean are erabatekoa, izan zela. *Hişn*, al-Andaluseko garai eta leku guztietan, landaguneko paisaiako elementua izan zen (1988: 73).

Penintsularen hego-ekialdean eginiko aurkikuntzei esker, batez ere Valentzian eta Alpujarrako informazioarekin bai eta Murziako informazioaren ekarpen batzuekin ere, zazpi egitura tipo bereizi zituzten, itxura orokorra eta espazioan hartzen zuten hedadura kontuan hartuta, hots, ikuspuntu morfologiko hutsetik: *al-qaşaba*, hiriguneko zitadela edo gotorlekua; funtzio administratibo, militar eta komertzialekin loturiko mugako edo ibilbide ertzetako gaztelua; gaztelu-kuartela, mugako edo liskarrak nagusi ziren gunetan kokatzen zen zainketarako dorrea, funtzio militar soila zuena; populazio landatar finkoari loturiko gaztelua; gaztelu-gotorlekua, biztanleriarekiko bereizita zegoena eta aldizkako gotorleku funtzioa zuena; herrixketako dorrea, behatzeko edo defentsarako bastioi modura erabiltzen zena; eta zelatzeko dorrea, pilaketetatik at kokatzen zen etsaia edo zonalde menditsu bat kontrolatzeko (1988: 107). Gai honi dagozkionak populazio landatar finkoari loturikoak eta gaztelu gotortuak lirateke.

#### 4. MANUEL ACIÉNEN TEORIA

Bazzana, Cressier eta Guichardek bezala Levante inguruko hipotesiak Penintsula osora zabaltzeko beharrez, Manuel Acien Almansaren arabera argi zegoen *Şarq al-Andaluseko* modeloa ez zela aplikagarria Penintsulako beste eremuetan; eta eredu hori aplikagarria ez



izateak eraman zuen, hain zuzen, al-Andaluseko hegoaldeko *hişnen* inguruan hausnartzera (1992: 264). Ideia horri loturik legoke Eduardo Manzano ere (1998: 352-353), zeinak dion azken hamarkadetako ikerketa gehienak Levanten edo ekialdeko Andaluzian egin direla, omeiarren garaian marjinalak ziren lurraldeetan; eta beste lurraldeetako ikerketak aldiz urriagoak direla informaziorik ez dagoelako. Horri jarraiki, lurraldeotatik ateratako informazioa beste lurraldeetan aplikaezina dela dio.

Horrela, ordura arteko al-Andalusen bilakaera sozialaren proposamen konplexuena (are egun onarpen handiena izaten jarraitzen duena) garatu zen, zeinetan al-Andaluseko islamizazioa formazio sozial ezberdinen arteko tirabiren emaitza moduan interpretatzen den. Hain zuzen, islamizazioak aurkitu zituen oztopoak formazio tribala (arabiarrek eta bereberek osatzen zutena) eta formazio feudala edo feudalizatzailea (indigenen oinordekoa zena) lirarteke. Penintsulako egoera honela deskribatu zuen: batetik formazio sozial islamikoa zegoen, zeinaren ezaugarriak pribatuaren eta mundu hiritarraren hegemonia ziren, eta hasiera batetik estatu Kordobarrarekin eta beste elementu bakan batzuekin adierazia izan zen. Horiekin batera, antolaera tribala eurekin ekarri zuten talde arabiarrek eta bereberek aipatu zituen. Azkenik, tokiko gizarte hispaniar-bisigotiarra aipatu zuen, Europa mendebalde osoan legez feudalizazio prozesuan aurkitzen zena. Aldi berean, prozesua modu linealean gauzatu ez zela ere azpimarratu zuen; hau da, indigenak gizarte tribalera hurbildu ziren bezala, gune feudaletan ere izan zela konkistatzaileen nolabaiteko aristokratizazioa, hots, feudalak ziren jarrera edo jokamoldeen gauzatzea (tribuen gaineko eta are islamizatutako lurraldeak kontrolatu eta harrapatzeko asmoa erakutsi baitzuten). Horien aurrean Estatu kordobarra izan zen islamizazioaren motor nagusia (Acién 1989: 142-145; 1992: 264). Aristokratizazioaren ideia baliteke Manzanogandik baliatu izana, baina haratago darama; izan ere, Manzanok aristokratizazioa onartu arren feudalek moduan jardun izana zalantzan jartzen duen bitartean Aciének zioen leinu arabiar eta bereberek aristokratizatu zirenean indigenen joera imitatzen hasi zirela (Acién 1998: 292). Edonola ere, aristokratizazio hori aitortu arren, al-Andalusen elementu feudalekin amaitzea islamizazioaren emaitza izan zela zioen. Eta horrek aurka egiten du erabat Barbero eta Vigilek proposaturikoarekin, aipatu moduan islamizazioa feudalizazioan sakontzeko tresna bailitzan interpretatu zutelako.

Aciének defendatu zuen trantsizio hori, zeina formazio ezberdinen arteko borrokan eta azkenik horietako bakar baten gailentzean oinarritzen den (talkan leudekeenak gizarte islamiarra eta gizarte feudal zein tribala lirarteke, azken biak lehenaren aurka), emirerri amaierako *fitnarekin* bukatuko litzateke. Kaliferriaren ezarpena izan zuen ondorio gerra

horrek, izan ere, trantsizioari eman zitzaion indarkeriazko amaiera eta gizarte islamiarraren inposaketa suposatu zituen (Acién 1997: 105-106). Guichardi jarraiki Aciének *fitnarekiko* zuen interpretapena interesgarria da, biek ere gizarte ezberdinen talkaren ondorio moduan ulertzen zutelako. Baina Aciéneen kasuan aurkaritzan zeuden gizarteak ez ziren indigena eta arabiar-berebera, baizik eta gizarte islamiarra (Estatu kordobarra nolabait esateko, estatu zentrala) eta gizarte feudal eta tribala; hau da, Guichardek bereizi zituen bi indarrek Aciéneen kasuan batera jardun zuten gizarte islamiarraren inposaketei aurre eginez.

Behin formazio sozial islamikoa finkatuta, errenta jaunek ez zuten lekurik izango gizartean, eta beraz bisigotiarren garaitik zetozen leinu aristokratiko gehienen amaiera jazo zen, gizarte berrian integratu ziren gutxi batzuen izan ezik. Baina gizarte islamiarraren finkapenak ez zuen suposatu iragan bisigotiarreko elementu guztien amaiera: Elizak iraun zuen, bai eta biztanleriarekiko bereizita bizi zen populazioak edo bazterreko gunetan irautea posible izan zuen aristokraziak ere (Acién 2000: 436).

Trantsizio konplexu horren baitan<sup>9</sup> izendatu zuen Aciének al-Andalus “*un país de ḥuṣūn*”. Ez du esaten al-Andaluseko gotorlekuen kasua salbuespenekoa izan zenik, baizik eta gotorlekuei dagokienean konplexua dela bai tipologiari bai funtzioari erreparatuz; hain zuzen, konplexutasun hori proposatu zuen trantsizio multilinealarekin lotu zuen (Acién 1992: 264). Aldi berean, trantsizio hori ulertzeko ezinbestekoa da mundu feudalaren oinordeko ziren eta inguruko lurak harrapatzera bideratzen ziren “gazeluratutako jaun (*señores encastillados*)” horien planteamendua onartzea, horrela soilik lortuko baita Cressierrek bereizi zituen *ḥiṣn* motak (batzuk handi eta konplexuak, *ummahāt al-ḥuṣūn*<sup>10</sup> gisan dokumentatuta leudekeenak; eta beste batzuk sinpleagoak, babesgune soilak izango zirenak, *ḥuṣūn* moduan dokumentatuta ageri direnak eta Aciének *ḥuṣūn-refugio* izena eman zienak) testuinguruan ulertzea (Acién 1998: 145). Hain zuzen, Cressier oinarri, Aciének adierazi zuen (2001: 68-69) *ḥiṣn* konplexu izendatu zituenek nahiko itxura daukatela iturrietan *ummahāt al-ḥuṣūn* moduan agertzen

---

<sup>9</sup> Formazio sozial islamikoaren ezarpena trantsizio baten ondorio izan zenaren ideia Salvatierrak (2022: 155) ere azpimarratzen du dokumentazio arkeologikoa oinarri. Haren arabera, VIII-IX. mendeetan aberastasuna ugaritu zen, zeinak fisko bilketaren areagotzea eta estatuaren handitzea ekarri zituen, eta noski horrek gizartea aldatzea. Horri islamizazio sozial deitu dio, zeinak gizartearen jokamolde eta arauetan aldaketa esan nahi baituen: etxebizitzetan, merkatuetan, kultura materialean...; bai eta landatarra eta errentan oinarritutakoa zen gizartea hiritarra, zentrala eta merkataritza egiturak zituena bilakatzea ere.

<sup>10</sup> *Umm* hitzak ama esan nahi du (Maíllo 1996: 250); beraz, *ummahāt al-ḥuṣūn*ek “gazeluen ama” esan nahi luke, nolabait.

direnekin, zeinek gotorlekuak (*alcazabas*), auzoak (*arrabales*) jauregiak eta eraikin erlijiosoak zituzten eta beraz argiki bereiz daitezkeen *ḥuṣūn-refugio* sinpleagoetatik. Gainera, Cressierren datuak (halako gotorlekuak X. mendean etengabe aipatzen direla dionak) ere bikain egiten du bat Aciének esandakoarekin: batez ere *fitna* garaian izan ziren eraikiak, zeinetan errebeldeek, gehienak muladiak, populazioa bildu eta estatu kordobarraren aurkako borrokarako oinarri moduan baliatu zituzten. Kronistek *fitnan* zehar muladi errebeldeek eraikitako gotorlekuak izendatzeko erabili zituzten eksklusiboki. Puntu honetan interesgarria da Malpicak Aciéni egin zion kritika aipatzea (2003: 68-70): *ummahāt al-ḥuṣūn* deitzen dituenak hala zenbateraino kontsidera daitezkeen leporatu zion, gaztelu konplexu asko gerora eraikitakoak direlako eta litekeena delako kristauak edo feudalak izatea. Gaztelu horien izaera feudal edo harrapariaren aurka, al-Andaluseko lehen garaietan sorturiko gotorlekuak feudalizazio prozesu baten ondorizkoak inola ere ez direla zioen, eta beraz *incastellamentoari* buruz baino haren porrotari buruz hitz egin behar litzatekeela.

Aciének gazteluen konplexutasuna honela azaldu zuen: batetik, populazio indigenak mendietara egin zuen ihes eta iturriek *ḥiṣn* moduan izendatzen dituzten guneetan finkatu ziren. Malagan bederen ihesaldi hori konkista garaian ugaritu zela zioen; baina noski, ihesaldi hori ez zen erregimen berri islamiarrarekikoa, baizik eta aurrekoarekikoa (1992: 264-265). Nekazarien ihesaldiaren fenomenoan bikain islatzen da Francovich eta Hodgesen eragina, horiek ere Erdi Aroko lehen mendeetan gune garaietako okupazioa defendatu zutelako (betiere Europa mendebalde latindarrean jazo zena azaltzeko). Baina azken horiek kastroen borondatezko okupazioa adierazi zuten bitartean Aciének okupazio hori aristokrazia bisigotiarraren presiopetik askatzeko mekanismo moduan ulertu zuen, konkista prozesuan egoera aprobetxatuz areagotu zena. Halaber, tokiko aristokraziaren sorreraren kontua ere nabarmentzekoa da, Aciének aristokrazia kastroetan bertan sorturikoa baino kanpotik etorritakoa izan zela zioelako, hau da, kanpotik ezarri zela *ḥiṣnekiko* menpekotasun feudala. Hori azaltzeko Ibn Ḥafṣūnen kasua aipatzen du, jatorrizko Takurunatik Malagako mendietara joan zela esanaz. Eta jaun horiek ez lirateke Francovich eta Hodgesek adierazi moduan borondatezko okupazioaren ondorengo mendeetan botere hutsunearen ondorioz tokian-toki pixkanaka sortuak; nekazariak ihes egiterako bazeuden jada, eta aristokrazia bisigotiarraren ondorengoak ziren. Beraz, ez legoke botere berririk, aristokrazia bisigotiarraren etengabeko jarraipena baino.

Aldi berean, batez ere Malagan baina bai eta beste leku batzuetan ezagutzen dugun mendietarako ihesaldi hori konkista aurreko garaietatik zetorren, bisigodoen azken

kontzilioetan jada agertzen baitira jopuen ihesaldien salaketak. Baina egia da prozesu hori konkistako egoeraz probestuta ugaritu zela (Acién 1997: 117-118). Argi ikusten da ihesaldiaren ideia justifikatzeko Barbero eta Vigil baliatu zituela, konkistarekin batera indigenen hirietatik landagunera alde egitea aipatu baitzuen. Baina ideiar beste zentzu bat eman zion, nolabait: Barbero eta Vigilek landan kokatzean ondasunak mantendu zituztela baizik ez zioten; ez zuten inolako ihesaldirik aipatu, eta are gutxiago ihesaldi hori jaun bisigotiar feudalizatuekikoa izan zela.

Iturri idatzietan ez ezik, okupazio hori gauzatu zela arkeologikoki ere agerian geratzen ei da: konkista garaian populazio handia galdu zuen Malaga hiriak ahula izaten jarraitu zuen biztanleriari dagokionean emirerri osoan zehar; aldiz, mendi tontorretan herrixka populatuak ugaritu ziren (Acién 1992: 264-265). Arrasto arkeologikoekin jarraituz, *ḥuṣūn-refugio*etan ez da aurkitu musulmana baino goiztiarragoa den zeramikarik, eta gainera eskuz edo tornu motelez eginikoak agertu dira, zeinak halako garaierako ezarmendu txikientzat aproposak suertatzen ziren. Francovich eta Hodgesek Erdi Aro hasierako garaierako okupazioetan aipaturiko zeramika sinplearen ideiarekin bat egiten du horrek. Halaber, badaude populatuak izan zirenen arrastoak ere: euren ekonomia biziraupenean oinarrituriko mendiko nekazaritzakoa edo basoaren ustiapenekoa litzateke, betiere soberakin apurra lortzeko asmoa zutenak harrapatzaileen etorrera ekiditeko asmotan (Acién 1997: 118). Beraz, Guichardek proposatu zituen gizarte islamiarraren oinarri berriei jarraiki, horiek herrixketako komunitateen edo gizarte segmentatuaren babesgune izango zirenen teoria onartu zuen. Baina noski haratago joan eta horiekin batera *ṣāhibek*<sup>11</sup> (pl. *aṣḥāb*) eraikitako *ḥiṣn* konplexuak ere egongo liritekeela azpimarratu zuen (Acién 1989: 145).

Hain zuzen, indigenen ihesaldia morroitzarekikoa izan zela argudiatzeko mendietaranzko mugimendu hori hasierako jaunen ondorengoek jarraituko zutenaren ideia azaldu zuen, zeinak beste gotorleku mota batzuetan kokatu ziren, iturrietan *ummahāt al-ḥuṣūn* moduan izendatuta agertzen diren konplexuagoetan. Gotorleku horiek *ṣāhib* delakoek kontrolatzen zituzten, zeinek harrapari moduan jarduten zuten izan herrixketako komunitateetan (*ḥuṣūn-refugio*) zein islamizatutako hiriguneetan. Noski, *ṣāhib* horiek aristokrazia hispano-godoaren genealogia zutela eta euren arbasoek praktika feudalak

---

<sup>11</sup> *Ṣāhib* (pl. *aṣḥāb*) hitzak erakundeetako arduradun, poliziako buru edo merkatuko arduradunari egiten dio erreferentzia; eta lurrari lotuta dagoenean kargu publikorik bete gabe haren gaineko domeinua duen pertsona izendatzeko ere erabiltzen da. Beraz, buruzagia edo jauna esan nahi du (Lorenzo Jiménez 2010: 388). Aciének (1997: 123) definizio horretatik abiatuta buruzagiok feudal moduan interpretatu zituen.

gauzatzen zituztela ere bazion. Beraz, *ummahāt al-ḥuṣūnen* funtzioa bikoitza zen: batetik herrixketako komunitateetan errenta ateratzeko zentrotzat eta bestetik islamizatutako zentroetako soberakina lapurtzeko babesgunetzat zirauten. Eta aipaturiko bilakaera ez lineala kontuan hartuta, jarduera horren burutzea ezin zaie egotzi klase agintari indigenaren ondorengoei bakarrik, bai eta leinu arabiar eta berebereei ere. Izan ere, ezin ahaztu dezakegu Aciénen arabera (1992: 265) horiek aristokratizatu eta indigenen joera imitatzen hasi zirela.

*Ummahāt al-ḥuṣūnetatik ḥuṣūn-refugio* eta hirigune islamizatuetik zegoen jarrera ikusita, VIII-X. mendeetako Europarako erabiltzen den izendapen bera erabiltzea aproposa iritzi zuen Aciének, hots, feudala (1998: 145). Eta hain zuzen jarrera feudal hori beste *ḥiṣn* mota batzuk justifikatzeko zitzaion baliagarri: Estatu kordobarrak eta islamizatutako populazioak eraikitakoak, *ummahāt al-ḥuṣūnetatik* pairatzen zituzten erasoetatik defendatzeko asmotan. Bertan mertzenarioak eta hornidura biltzen ziren edo populazio islamizatuak kokatzen ziren (esaterako, Pechinan<sup>12</sup>). Beraz, babesgune sinple eta gotorleku konplexuekiko ezberdinak zirenez, litekeena da arkeologikoki bien arteko zerbait moduan identifikatu ahal izatea (Acién 1992: 265); oraindik halakorik egin ez den heinean hipotesi soila bada ere.

Elementu feudalen biziraupena azaltzeko beste elementu bat *dimmīetan*<sup>13</sup> oinarritzen da. Haien inguruan zioen ordaintzen zutena asko zela baina izatez ordaintzen zutenak gutxi zirela, eta horrekin interpretatu zuen lurjabetza izugarriak zituztela, zeinak bat egiten duen iturrietan erreferentzia egiteko baliatzen diren *nobiles* edo *fortes* hitzarekin. Horrekin IX. mendeko bigarren erdialdeko *fitnara* arte iraun zuen aristokraziaren jarraipen bisigotikoa azpimarratu zuen (Acién 1998: 297). Guichardek ere ordaintzaile kopuruari dagokionean antzekoa zioen, baina beste ikusmolde batetik, kristauen garrantzia minimoa eta presio izugarria iradokiz, alegia. Hain zuzen, horregatik egingo zioten Guicharden ustez matxinatzeari.

Jaun horiek, Aciének iturriak oinarri *ṣāhib* deitzen zituenek, soberakinaren zati bat *ummahāt al-ḥuṣūn* delako gotorlekuak eraikitzeko baliatuko zuten, zeinak garaiotan izugarri ugaritu ziren. Arkeologikoki konplexuagoak ziren eta iturri idatzietan hornituagoak

---

<sup>12</sup> Pechinaren inguruan infomazio gehiago ezagutzeko beha López Martínez de Marigorta (2020).

<sup>13</sup> Literalki, babestutako jendea esan nahi du. Izatez, lurralde islamikoetan musulmanak izan gabe bizi zirenak, eta beraz zergak ordaindu behar zituztenak ziren. Horien trukean ezin ziren esklabizatu edo gaizki tratatu, eta euren ohitura eta erlijioa errespetatu behar ziren (Maíllo 1996: 21).

deskribatzen ziren; horietan *qaṣr* (pl. *quṣūr*) edo jauregiak eta eraikin erlijiosoak ere (elizak zein meskitak) bazeuden. Bertan hierarkia kokatuko zen, zeinetan buruzagi nagusiak errebelde handiak eta senide gertukoenak liratekeen (batez ere semeak); eta haien pean menpeko *ṣāhibak* eta *qā'id* (pl. *quwwād*) delako espezialista militarrek zeuden, aldi berean hierarkizatuta zeudenak (garrantzitsuak eta arruntak bereizten zirelako). Hierarkiaren konposizioa anitza zen, senideez gain eklesiastikoak ere bazeudelako (Ibn Maqsim kasu<sup>14</sup>); bai eta funtzionario, mertzenario, administrazioari edo elizari loturiko kide, errebelde apalagoak... ere. Populazioaren zati handiak egin zien errebeldeei aurre hirietan zein landagunean estatuko gobernadorei babesa eskatuaz. Hiriguneez oposizioan arrakasta handiagoa izan zuten beste errebeldeekin aliantzak eginez (errebeldeen arteko lehiakortasunaren testuinguruan); aldiz, landak, halakorik ez egotean, errebeldeen esku geratu ziren (Acién 1998: 300-301).

#### 4.1. Ibn Hafṣūn: Aciéneko teoriaren oinarria

IX. mendeko *fitnara* jatorri hispano-godoa zuen aristokrazia heldu ahal izateko Guichardi parafraisi eginez Aciének zioen 711ko konkista ahula izan zela, aristokraziak landagunean boterea izaten jarraitu baitzuen. Aristokrazia horren mehatxurik handiena ezkontza mistoena izan zela ere bazion, eta beraz, Elizak haiek debekatu zituela: “*Quod multi, dicentes catholici esse, communem vitam gerentes cum iudeis et non baptizatis paganis, tam in escis quamque in potis seu et in diversis erroribus nihil pollui se inquit; et illud, quod inibitum est, ut nulli liceat iugum ducere cum infidelibus*” (MC: 241-242). Puntu interesgarria da honakoa, hausturaren aldekoa den Fierrorekin neurri batean bat egiten duelako, azken horrek ere ezkontza mistoen bidez indigenak leinu arabiarretan txertatuta geratu zirela baitio. Baina ez dute guztiz bat egiten, Aciének zioelako *fitnara* arte biziraun zutela leinu muladi batzuek, euren oinordekotza maskulinoa mantendu ahal izan zutenek edo ezkontza mistoetan txertatu ez zirenek, alegia. Eta noski, biziraupen horrekin batera “*se ha de pensar*” leinu horiek euren oinarri ekonomikoa mantendu zutela, nagusiki landatarra zena eta euren izaera dominatzailea mantenduko zuena (Acién 1997: 111-112).

Leinu muladi horietako bat izan zen hain zuzen Ibn Ḥafṣūnena. Ibn Ḥafṣūn *fitna* garaian Kordobako botere zentralari errebelde izateagatik zaigu ezagun: “*sus seguidores*

---

<sup>14</sup> Ibn Maqsim Bobastroko apezpikua izan zen IX. mendean. Jakinduria eta bitartekari irudia esleitu zitzaion Ibn Ḥafṣūn errebeldearen eta emirarren arteko bitartekari lana egin zuelako. Bobastron ez ezik, hiriaren inguruan ere bazeuden ezarmendu monastikoak, eta haietako baten ardura ere izan zuen (Aillet 2010: 90).

*consideraban a la vez como el campeón por antonomasia de su causa y de la rebelión contra el emir; pero ese pertinaz rebelde (...) no pudieron aplastarlo, de tal forma que su rebelión sólo pudo ser sofocada por el califa al-Nāṣir li-Dīn ‘Abd al-Raḥmān (III)’* (MQ III: 36). Leinuaren jatorrizko Takurunako oinetxetik Malagako mendietara joan zen; leku aldaketa hori jatorrizko gunearen abandonua eta ordura arte euren ez zen berri batean txertatzea izan zen. Ikusten da, beraz, lider eta errebelde muladiak ez zirela izan tokian tokitik sortutako agintariak, baizik eta nekazariei jarraiki lekualdatu zirenak. Baina Malagan ere ez ziren ondasun izugarriak izatera heldu; beraz, Aciéne arabera (1997: 112-113) euren “handiagotzea” soberakina erakartzeko eta nekazarien gainean kontrola izateko gaitasunean oinarritu zen, eskubide jakin batzuen aitortzaren pean. Eskubide horiek ezezagunak badira ere, horretarako oinarri sozial edo botere jakin bat izan beharko zuten.

Ibn Ḥafṣūn bezalako muladien leinuek mendietara jarraitu zutela ulertzeko kontuan izan behar dugu islamizatutako guneetan (izan hiritar zein landatar) ezin zutela euren lekua aurkitu, hots, ezin zutela ordura arteko aristokraziaren eskubideen aitortzan jarraitu. Aitorpen hori leku jakin batean baizik ezin zuten eskuratu: bizitza hiritar islamikoaz ezer ez zekiten guneetan, mendira ihes egin zuten nekazarien artean, alegia. Horrek bakarrik ahalbidetuko zien leinu horiei errentaren ateraketan oinarrituta “handiagotzen”. “Handiagotze” prozesu horretan “*bandolerismo*” fase batetik jaun edo *ṣāhib* izatera igaro ziren, eta behin populazioaren gaineko kontrola eta errenta ateraketa bermatzen zuten *ummahāt al-ḥuṣūn*ak eraikita inguruko nukleo islamikoetan ere hasi ziren soberakina arpilatzen. Horrela helduko zatekeen *ḥiṣnen* baitan eraikitako egitura bere hedadura maximora, elkar laguntzeko sareak eraikiz bai maila bereko errebeldeekin bai eta maila baxuagokoak integratuz (Acién 1997: 122-124).

Zentzu horretan, Toubertek definitutakoak Ibn Ḥafṣūn egiten saiatu zenarekin antza handia duela zioen: gotorleku handiak, ohiko zergen usurpazioa eta *magārim* bezalako inposaketa, eta elizen eraikitzea. Beraz, esan dezakegu jatorri bisigotiarreko aristokrazia andalustarrak, helburuei dagokienean bederen, ez zirela hain ezberdinak Europarekiko. Ezberdintasun nagusia zera izan zen, Europa feudalean ez bezala estatu tributarioa eta gizarte islamizatu izan zutela aurrean (Acién 2001: 69). Hain zuzen, Acién berak esan zuen (1998: 292) estatu islamikoaren aurkako azken saiakera mundu hispano-godoaren ondorengoek garaieran kokaturiko gotorleku handietan kontzentratuta zeudenean egin zutela, eta kontzentrazio horrek modu orokor batean *incastellamento* toubertiarrarekin antza duela.

#### 4.2. Ibn Ḥafṣūnen genealogia, ustezko mitoa

Ikusten da, beraz, kristauen ondorengoak ziren muladi errebeldeen teoria <sup>5</sup>Umar Ibn Ḥafṣūnen baitan eraiki zuela Aciének, zeinak genealogia bisigodoa zuen. Badira, ordea, Ibn Ḥafṣūnen genealogia asmatuak dela esateko arrazoi zenbait.

Genealogiak erreparatuta, ez dago arbaso kristauen presentziarik al-Andaluseko musulmanen arbaso zerrendetan. Horren arrazoiak zenbait dira: ez zirelako garrantzitsuak (musulman nortasunean ondorengotza islamiarra baizik ez zelako balio zuena), edo are ez zirelako desiatuak musulmanen arbaso bezala. Aldi berean, belaunaldien igaroan sinpleki desagertu egingo ziren, genealogian hiru, lau edo kasu batzuetan bost izen baizik ez zirelako mantentzen, eta beraz belaunaldi berri bakoitzeko azkena ahazten joango zelako (Wasserstein 2002: 285). Aitzitik, Ibn Ḥafṣūnen kasuan zazpi belaunaldi (bera kontuan hartuta zortzi) aurkitzen ditugu, zeinetan lau zaharrenak kristauak diren. Zentzu horretan Wassersteinek zalantza egiten du (2002: 286-287) genealogia hori egiazkotzat hartu behar ote den: al-Andalus osoan islamera konbertitutakoen kasu bakarra litzateke; gainera, gizarte kristau aurreislamikoan oinordekotzari ez zitzaion garrantziarik ematen eta musulmanek ere ez zuten interesik euren arbaso kristauen memoria kontserbatzen. Nahiko arraroa suertatzen da genealogia ondorengo garaietako kronistek aipatzeraino heltzea ere. Horri lotuta dio ez dela kasualitatea Ibn Ḥafṣūnena kontserbatu izana, kristauen ondorengoa ez ezik gobernatzaile musulmanen aurka matxinatu eta oinordekotza kristaua aldarrikatu zuena izan baitzen.

Horren aurrean, Wassersteinek dio litekeena dela asmakuntza bat izatea. Izan ere, X. mendeko Ibn al-Qūṭīyya kronistak kristautasunera konbertitu zena aita izan zela esan zuen: *“In the province of Rayya <sup>5</sup>Umar ibn Ḥafṣūn revolted at Bubashtir [Bobastro]. His father was a covert to Islam from among the non-Muslim community of al-Andalus”* (TIA: 120-121). Ziurrena da genealogia hori sortu zutenak musulmanak baino kristauak izatea, eta Ibn Ḥafṣūnen garaian egitea. Ibn Ḥafṣūnen bizitzako xehetasunek asmakuntza hori noiz gauzatu zen zehaztera eramane gaitzakete: 899an kristau bilakatu zen, bere jatorrizko arbasoen erlijiora; handik urte gutxira ordea, 910ean, Afrika iparraldean ezarri ziren fatimarrei<sup>15</sup> aliantza eta babesa eskaini zien, bere egonkortasun ezaren adierazle. Beraz, asmakuntza hori bi konbertsio horien artean kokatzea litzateke aproposena: izaera kristaua indartu nahiko zuen, eta horrela Iberiako iragan kristauan sustraiak zituen izaera eraikitzen hasi zen;

---

<sup>15</sup> Fatimarra Afrika iparraldean eta gerora Egipton 909-1171 artean agintean izan zen dinastia izan zen. Bere izena profetaren alaba zen Fatimatik dator, haren ondorengoak zirela baitzioten (Maíllo 1996: 84).



horregatik erabili zuen Alfontso izena genealogiaren hastapenetan, ezarri zuen kronologian Asturiaseko erreinuko erregea Alfontso III.a zelako (Wasserstein 2002: 291-294)

Maribel Fierrok ere dio indigenek genealogiak sortzeko zailtasunak zituztela, eta hori ongi islatzen dela Ibn Ḥafṣūnen kasuan. Izan ere, konde bisigotiarren ondorengoa zela aldarrikatu zuen, eta Wassersteinek bezala, azpimarratzen du genealogiako lehen izena Alfontso III.a izatea ez dela kasualitatea. Leinua faltsutzat jotzen du eta kristautasunerako konbertsioarekin loturik egon daitekeela dio, horrela al-Andalusen errege kristau moduan gobernatzeko legezketasun genealogikoa izateko baliatuko zuelakoan. Aurreko autorearen gauza bera azpimarratzen du Fierrok: izatez bazeuden arabizazioari eta akulturazioari uko eta euren arbaso bisigodoei gorazarrea egiten zieten kristauak, baina orokorrean mantendu ziren izen kristauek ez daramate inolako filiazio etniko edo *nisbarik*<sup>16</sup> (Fierro 2014: 19).

Ibn Ḥayyānen arabera (MQ V: 166), 929an ʿAbd al-Raḥmān III.ak Bobastroko gotorlekua konkistatu zuenean ikusi zuten Ibn Ḥafṣūn modu kristauan izan zela lurperatua. Baina iturrien kritika eginez, Fierrok dio aurkikuntza horren helburua balitekeela garaipena goraiatzeko izatea, hots, garaitu zutena errebelde sinple bat baino jarraitzaileak zituen apostata bat zela azpimarratzea. Horren aurka, Fierrok dio Ibn Ḥafṣūnek noizbait apostatatu izatekotan, bere jarrerek erakusten dutela (913 urtean gobernu fatimarra aitortzea eta 919an ʿAbd al-Raḥmān III.aren pean ezartzea) gerora islamera itzuli zela berriro. Azkenik, Ibn Ḥafṣūnen boterea mantentzeko saiakera guztiek izandako porrotek erakusten digute islamaren etorrerarekin aldaketa politiko eta sozial sakonak egon zirela (2014: 21- 22).

## 5. ONDORIOAK

Funtsean, ezin uka daiteke al-Andaluseko gazteluen inguruko eztabaidaren garrantzia. Eztabaidaren garatzerako ezinbestekoa izan zen noski Guichardek gizarte islamiarraren oinarri berriak finkatzea, nahiz eta gerora Aciénekin postulatuarekin gazteluen balizko izaera kolektiboa eta hierarkizatu gabea bazter geratu zen eta horiek feudalen pareko interpretatzen hasi ziren, mendebaldeko Europa feudalean gertatzen ari zenarekin lotuaz. Ikuskera horren garatzerako noski al-Andalus ez ezik, Europari buruz garaian egon ziren ikerketak ere aintzat hartu behar dira, hots, Toubertek plazaraturiko *incastellamento* fenomenotik abiatu zirenak. Egun, dezente dira al-Andaluseko gazteluen inguruan ikertu eta idatzi duten autoreak, baina

---

<sup>16</sup> *Nisba* hitzak jaiotze lekuari, egoitzari edo jatorriari egiten dio erreferentzia; eta tribuaren izenari edo lekuaren izenari *-ī* (maskulinoa) edo *-iyya* (femeninoa) atzizkia gehituta eratzen da. Pertsona batek *nisba* bat baino gehiago izan ditzake (Schimmel 1989: 10).

guztietan hipotesirik indartsuena 1990ko hamarkadan Aciének plazaraturikoak jarraitzen du izaten; eta horregatik hartu du hain zuzen rol zentrala aurkeztu dudana eztabaidan ere.

Aciénen baieztapenek 1988an Guichardek, Bazzanak eta Cressierrek egindako proposamenak haratago eramane zitzutela esaten da. Eta zentzu horretan egia da hirukote frantsesaren ekarpena sekulakoa izanagatik badituela hutsune batzuk. Izan ere, *hişnak* al-Andaluseko garai eta leku guztietan egon zirela baieztatu zuten; baina izatez Penintsularen hego-ekialdean soilik aztertu zituzten (Penintsulako gainerako gunetan ez direlako aurkitu), eta horiek gainera XII-XIII. mendetik aurrerakoak dira. Beraz, haien ideiak ezeztatu ezin diren arren, baieztatu ere ezin daitezke egin.

Baina noski, aipaturiko hipotesiak hutsuneak dituela ikusteak ezin gaitzake zuzenean Aciénen teoria zuzena dela interpretatzera eramane. Egia da izatez ekarpen interesgarria eta konplexua dela, baina aztertu dudana bezala, baliatzen dituen oinarriak oso ezberdinak dira elkarrekiko, eta beraz horien artean bateragarriak izan ote daitezkeen zalantzarria da. Elementu zalantzarria horietako batzuk aipatze aldera hauek esan litezke: Cressierrek bereizten dituen gaztelu konplexuagoak (*ummaḥāt al-ḥuṣūn* moduan identifikatu zituenak) baliatu zituen, baina Cressier berak haiei ematen dien funtzio kolektiboa ukatzen; aipatu zituen *ummaḥāt al-ḥuṣūn*ak ez daude identifikatuta arkeologikoki eta beraz ezin esan daiteke herritarren harrapari moduan jardungo zutenik; Guichardi, Cressierri eta Bazzanari egiten zaien kritika antzekoa baliatuz litekeena da, Malpicak adierazi moduan, Aciének baliatu zituen gazteluak islamikoak baino feudalak eta beraz kronologia berantiaragoak izatea; hitz batzuei emandako interpretapena edo esanahia ere zalantzarria da (*ṣāḥib* delakoak jaun feudaltzat hartu zituelako, baina izatez buruzagi baino esan nahi ez duelako); Toubertek adierazi moduan jaunak gazteluetan kokatzen zirela azpimarratu zuen, baina kokatu zituen kronologia Toubertek zein are Francovich eta Hodgesek esanikoa baino askoz goiztiaragoa da, nekazariak kastroetara alde egin baino lehen jaun feudalak bazirela baitzion; elementu bisigotiarren jarraipena azpimarratu zuen baina gero Barbero eta Vigili aurka eginez musulmanen etorrerak feudalizazioaren amaitzea suposatu zuela zioen...

Elementu horiek guztiak kontuan hartuta, Aciénen teoriak hasiera batean biribila dirudien arren, elementu guztiak arretaz erreparatu ostean hutsuneak edo kontraesanak izan badituela ohar gaitzke, hori guztia Aciének eztabaidan eta orokorrean al-Andaluseko *hişnen* ezagutzan egin duen ekarpen izugarria ukatu gabe. Kontraesan horiek ulertzeko nahikoa litzateke adieraztea bai hausturaren bai trantsizioaren alde edo bai gazteluen izatera

kolektiboaren edo pribatuaren alde egiten duten autoreen elementuak modu berean baliatzen dituela bere teoriaren eraikitzerako baliagarriak bazaizkio, izatez euren postulatuak guztiz kontrakoak badira ere.

Horren aurrean azpimarratu nahi nuke, Guichardek proposaturikoak hutsuneak izan baditzake ere, gazteluen funtzionamendua ulertu eta euren izaera zehazterako orduan funtsezkoa irizten dudala hark esanikoa, al-Andalus ekialdeko beste lurralde islamiar bat bailitzan interpretatu behar dela alegia, ez Europa mendebaldearekiko duen gertutasunagatik lurralde bereizgarri moduan. Izan ere, hori kontuan hartuta soilik lortuko da gizarte islamiarra feudala izan ezin daitekeenaren ideia berrestea, eta beraz nire gaiari dagokionean *hişnen* izaera kolektiboa azpimarratzea.

Plazaraturiko eztabaida, hala ere, ikertuta dagoenaren sarrera bat baino ez da, eztabaidaren ezagutzarako hastapen bat. Argi dago eztabaidak egun egoten jarraitzen duela, eta hori neurri batean ezagutzeke dagoen guztiagatik da, lanean zehar suma daitekeen bezala hutsuneak nabariak direlako eta horrek zalantzak egitera garamatzalako, hots, etengabeko galderak egitera. Baliteke hutsune nabarmenetako bat egungo ikerlariak Aciének duela hamarkada batzuk aipatu zituen *hişnen* bila jarraitzea bera izatea. Horixe da lanean sakontzearekin neuri ere jazo zaidana: informazio gehiago ezagutu ahala, geroz eta modu nabarmenagoan ikusi dut hipotesiak euren artean kontraesankorrak eta hutsunedunak direla. Beraz, orain arte eraiki diren ekarpen interesgarriak eta aurkitzeke dagoena uztartuz, edo beharbada orain arteko ildoak errotik apurtuz, etorkizunean al-Andaluseko *hişnen* eta haien funtzionamenduaren inguruan zeresanik egongo dela ezin uka daiteke.

## 6. ITURRIAK

### Lehen mailako iturriak

(CIH) Anonimoa: *Continuatio Isidoriana Hispana*. Ed. eta itzul. López Pereira, J. E. (2009): *Crónica mozárabe de 754*. León, Centro de Estudios e Investigación San Isidoro.

(MC): *Monumenta Carolina. Bibliotheca Rerum Germanicarum IV*. Ed. eta itzul. Jaffé, Ph. (1867). Berlin, Weidmann.

(MQ III) Ibn Ḥayyān: *al-Muqtabis III*. Itzul. Turienzo Veiga, G. (2017): *Crónica del emir ‘Abd Allāh I entre los años 275 H. I 888-889 d. C. y 299 H. I 912- 913 d. C.* Madril, Instituto Egipcio de Estudios Islámicos.

(MQ V) Ibn Ḥayyān: *al-Muqtabis V*. Itzul. Viguera, M. J. eta Corriente, F. (1981): *Crónica del califa ‘Abdarrahman III an-Nasir entre los años 912 y 942*. Zaragoza, Instituto Hispano-Árabe de cultura.

(TIA) Ibn al-Qūṭiyya: *Tārīḥ Iftitāḥ al-Andalus*. Itzul. James, D. (2009): *Early Islamic Spain. The history of Ibn al-Qutiyya*. New York, Routledge.

### Entziklopediak eta hiztegiak

EI (2003): *The Encyclopaedia of Islam*. Leiden, Brill.

MAÍLLO, F. (1996): *Vocabulario de historia árabe e islámica*. Madril, Akal.

### Bibliografía

ACIÉN ALMANSA, M.

(1989): “Poblamiento y fortificación en el sur de al-Andalus. La formación de un país de *ḥuṣūn*”, *III Congreso de Arqueología Medieval Española* (bol. 1). Oviedo, Universidad de Oviedo, 135-150 or.

(1992): “Sobre la función de los *ḥuṣūn* en el sur de al-Andalus. La fortificación en el califato”, *Coloquio hispano-italiano de Arqueología Medieval*. Granada, Patronato de La Alhambra y Generalife, 263-274 or.

(1997): *Entre el feudalismo y el Islam: ‘Umar Ibn Ḥafṣūn en los historiadores, en las fuentes y en la historia*. Jaén, Universidad de Jaén.

(1998): “El final de los elementos feudales en al-Andalus: fracaso del “incastellamento” e imposición de la sociedad islámica”, *Actes des rencontres de Gérone (26-27 novembre 1992) et de Rome (5-7 mai 1994)*. Erroma, École Française de Rome, 291-305 or.

(2000): “La herencia del protofeudalismo visigodo frente a la imposición del Estado Islámico” *Visigodos y omeyas : un debate entre la Antigüedad tardía y la Alta Edad Media, (Mérida, abril de 1999)*, Mérida, Consejo Superior de Investigaciones Científicas (CSIC), 429-441 or.

(2001): “De nuevo sobre la fortificación del emirato”, *Mil Anos de Fortificações na Península Ibérica e no Magreb (500-1500)*. Lisboa, Edições Colibri, 59-75 or.

AILLET, C. (2010): *Les mozarabes. Christianisme, islamisation et arabisation en Péninsule Ibérique (IX<sup>e</sup>-XII<sup>e</sup> siècle)*. Madril, Casa de Velázquez.

BARBERO, A. eta VIGIL, M. (1991 [1978]): *La formación del feudalismo en la Península Ibérica*. Bartzelona, Crítica.

BAZZANA, A. (1998): “*Hişn* et territoire dans l’organisation du peuplement islamique dans al-Andalus”, «*L’incastellamento*». *Actes des rencontres de Gérone (26-27 novembre 1992) et de Rome (5-7 mai 1994)*, Erroma, École Française de Rome, 179-204 or.

BAZZANA, A, CRESSIER, P. eta GUICHARD, P. (1988): *Les châteaux ruraux d'alAndalus. Histoire et archéologie des huşūn du sud-est de l'Espagne*. Madril, Casa de Velázquez.

CRESSIER, P. (1991): “Agua, fortificaciones y poblamiento: el aporte de la arqueología a los estudios sobre el sureste peninsular”, *Aragón en la Edad Media*, 9, 403-428 or.

FIERRO, M. (2014): “Ibn Ḥafşūn, ¿el hombre que pudo reinar?”, *Jábega*, 105, 13-24 or.

FRANCOVICH, R. eta HODGES, R. (2003): *Villa to village: The Transformation of the Roman Countryside in Italia c. 400-1000*. Londres, Duckworth.

GARCÍA SANJUÁN, A. (2006): “El concepto tributario y la caracterización de la sociedad andalusí: treinta años de debate historiográfico”, *Saber y sociedad en Al-Andalus : IV-V Jornadas de Cultura Islámica* García Sanjuán, A. (ed.). Huelva, Universidad de Huelva, 81-152 or.

GUICHARD, P. (1976): *Al-Andalus. Estructura antropológica de una sociedad islámica en Occidente*. Barcelona, Barral.

LÓPEZ MARTÍNEZ DE MARIGORTA, E. (2020): *Mercaderes, artesanos y ulemas. Las ciudades de las coras de Ilbira y Pechina en época omeya*. Jaén, Jaéneko Unibertsitatea.

LORENZO JIMÉNEZ, J. (2010): *La dawla de los Banū Qasī. Origen, auge y caída de una dinastía muladí en la frontera superior de al-Andalus*. Madrid, CSIC.

MALPICA, A. (2003): *Los castillos en al-Andalus y la organización del territorio*. Cáceres, Universidad de Extremadura.

MANZANO MORENO, E.

(1998a): "El problema de la invasión musulmana y la formación del feudalismo: un debate distorsionado", *'Romanización' y 'Reconquista' en la Península Ibérica: nuevas perspectivas*. Salamanca, Ediciones Universidad de Salamanca, 339-354 or.

(1998b): "Relaciones sociales en sociedades precapitalistas: una crítica al concepto de «modo de producción tributario»", *Hispania*, 58(200), 881–913 or.

SALVATIERRA, V. (2022): "Política y territorio en la península ibérica. En los siglos VIII y IX. El emirato andalusí", *El Reino de Asturias y Europa. Siglos VIII y IX* (C. García de Castrio ed.), Gijón, Gobierno del Principado de Asturias, 112-160 or.

SCHIMMEL, A. (1989): *Islamic Names*. Edinburgo, Edinburgh University Press.

TOUBERT, P. (1990): "El *incastellamento*. Ritmos y formas de un crecimiento", *Castillos, señores y campesinos en la Italia medieval*. Barcelona, Crítica, 177- 240 or.

WASSERSTEIN, D. J. (2002): "Inventing tradition and constructing identity: the genealogy of 'Umar Ibn Ḥafṣūn between christianity and islam", *Al-Qantara*, 2, 269-297 or.